Para poder optar a la adjudicación de la plaza asociada al puesto de trabajo objeto de esta convocatoria, las personas aspirantes deberán proceder a la alegación de los requisitos específicos que el puesto tenga asignados en la relación de puestos de trabajo en el plazo y en la forma concretados en estas bases.

EK\CV GAO-I-2025-03816

6. Izangaiak onartzea.

1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatearen ebazpenaren bidez onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta webgunean (www.zumaia.eus).

Zerrenda horietan izangaiaren izena eta bi abizenak agertuko dira, baita beren nortasun agiri nazionalaren edo agiri baliokide baten lau zenbaki ere. Onartu ez izanaren arrazoiak ere adieraziko dira, halakorik balego.

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta ondorengo egunetik hasita, zerrenda horretan baztertutzat ageri direnek eta ez batean ez bestean agertzen ez direnek, erreklamazioak aurkezteko edo eskabideak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea izango dute.

Erreklamaziorik edo zuzenketarik ez balego, behin-behineko zerrenda hori, besterik gabe, behin betikotzat joko da. Erreklamaziorik edo zuzenketarik balego, onetsiak ala ezetsiak izango dira behin betiko zerrenda onartzeko hartu beharko den beste ebazpen batean. Aipatu ebazpena lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

7. Epaimahai Kalifikatzailea.

Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko, eta parte-hartzaileak hautatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Ondorengo artikuluetan jasotakoaren arabera eratuko da: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/1991 Errege-dekretuaren 4. artikuluan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 21.1 artikuluan.

Epaimahai Kalifikatzailea mahaiburu batek, hiru mahaikidek eta idazkari batek osatuko dute.

Osaera, nagusiki, teknikoa izango da, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du. Beraz, kide guztiek deitutako lanpostuak eskuratzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa izan beharko dute, eta kideen erdiek, gutxienez, bete beharreko lanpostuaren jakintza-arlo berekoak izan beharko dute, eta, ez dela egokia justifikatzen ez bada, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu beharko da.

Epaimahaiaren osaketa onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpenean zehaztuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko da.

Salbuespenez, eta antolaketa arrazoiak direla medio, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak argitaratu ahal izango dira Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena eta oposizio fasearen lehen ariketa egiteko data eta tokia argitaratu baino lehen.

Kasu horretan, bai onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak bai Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena aurreko paragrafoan adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

Nolanahi ere, epaimahaiak, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako, aholkularien laguntza eska dezake bere lanetan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9.

Epaimahaia osatzen duten pertsonek ezin izango dute parte hartu, eta Udalbatzako buruari jakinarazi beharko diote, Sektore

6. Admisión de aspirantes.

1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se aprobará y publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web (www.zumaia.eus) la relación provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas por Resolución de la Alcaldía.

En las listas constará el nombre y dos apellidos de las aspirantes junto con cuatro cifras del documento nacional de identidad o documento equivalente y, en su caso, la causa de la no admisión.

A partir del día siguiente al de la publicación de la lista provisional, las personas que figuren excluidas en la referida lista, así como las que no figuren en ninguna lista, dispondrán de un plazo de 10 días hábiles para presentar reclamaciones o subsanar solicitudes.

Si no hubiera reclamaciones o subsanaciones, la lista provisional se entenderá automáticamente como definitiva. Si hubiera reclamaciones o subsanaciones, serán estimadas o desestimadas en otra resolución que deba adoptarse para la aprobación de la lista definitiva. Dicha resolución se publicará del mismo modo que la anteriormente señalada.

7. Tribunal Calificador.

Para la determinación, desarrollo y evaluación de las pruebas y méritos del concurso-oposición, así como para la selección de las personas participantes, se constituirá un tribunal calificador. Se regirá por lo dispuesto en el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, en el artículo 4 del Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, en el artículo 81 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco y en el artículo 21.1 del Decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

El Tribunal calificador estará compuesto por un/a Presidente/a, tres Vocales y un/a Secretario/a.

Su composición será eminentemente técnica y vendrá determinada por el principio de especialidad. Por tanto, todos los miembros deberán estar en posesión de una titulación de igual o superior nivel académico a la exigida para acceder a los puestos convocados, y al menos la mitad de sus miembros deberán pertenecer al mismo área de conocimiento que el puesto a cubrir y, salvo que se justifique su inadecuación, deberá garantizarse una representación equilibrada de mujeres y hombres.

La composición del Tribunal se determinará en la resolución por la que se apruebe la relación provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas y se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal (www.zumaia.eus).

Excepcionalmente, y por razones organizativas, las listas provisionales de personas aspirantes admitidas y excluidas podrán hacerse públicas antes de la publicación del nombramiento del Tribunal Calificador y de la fecha y lugar de celebración del primer ejercicio de la fase de oposición.

En este caso, tanto las listas provisionales de personas aspirantes incluidas y excluidas, como la fecha del primer ejercicio, así como la designación del Tribunal Calificador, se publicarán en los lugares indicados en el párrafo anterior.

En todo caso, el Tribunal podrá recabar en sus trabajos la colaboración de personas asesoras para todas o algunas de las pruebas del proceso selectivo. Estas personas asesoras se limitarán a sus especialidades técnicas, de acuerdo con lo establecido en el artículo 81.9 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Las personas que integran el Tribunal no podrán participar y deberán ponerlo en conocimiento del Presidente de la Corpora-

EK\CV GAO-I-2025-03816

Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek atzera bota ahal izango dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, gutxienez burua eta idazkaria eta gainerako kideen erdiak bertaratu ez badira (titularrak edo ordezkoak), idazkaria zenbaketatik kanpo lagata.

Kanpoan edo gaixorik egonez gero, eta, oro har, justifikatutako arrazoiren bat gertatzen bada, kide anitzeko organoko titularren ordez haien ordezkoak arituko dira. Epaimahaiburuaren kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, ordezkoa jarriko da haren ordez, eta, halakorik ez badago, epaimahaian maila, antzinatasun eta adin handiena duen kidea, hurrenkera horretan. Idazkaria kanpoan edo gaixorik badago, edo kargua hutsik badago, haren ordezkoak ordezkatuko du, edo, bestela, haren erabakiz.

Epaimahai Kalifikatzaileak egingo du hautaketa-sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa; autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Beraz, deialdi honetan eta bere oinarrietan ezarritako mugen barruan, Epaimahaia da egin beharreko proben edukia, aplikatu beharreko ebaluazio-irizpideak, proben emaitzak eta proba horiek gauzatzeari buruzko era guztietako inguruabarrak zehazteko organo eskuduna, eta bere lanetan aholkulariak edo espezialistak sartzea erabaki dezake, lehiaketa-oposizioan jasotako proba guztietarako edo batzuetarako, eta aholkularitza eta lankidetza teknikoa ematera mugatuko dira.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 10eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluetan zehaztutako arauen arabera jardungo du epaimahaiak. Epaimahaiburuak hautaketa-prozesua koordinatuko du, eta bozketetan egon daitezkeen berdinketak ebatziko ditu, kalitatezko botoarekin. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik; azken horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Epaimahaikideek eta hautaketa-prozesuan parte hartzen duten aholkulariek eta espezialistek, beren eginkizunak betetzean, intimitaterako eskubidea eta izangaiekiko errespetua eta begirunea bermatuko dituzte, eta izangai bakoitzari buruz jasotako informazioa behar bezala tratatzen dela zainduko dute.

Epaimahaiak ahalmena izango du, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, eta prozesuaren interpretazioari eta aplikazioari buruz sortzen diren auzi guztiak ebazteko, bai eta bere funtzioak betetzeko ere.

Epaimahaiak hautagaien nortasuna egiaztatzeko eskatu ahal izango du hautaketa-prozesuaren edozein unetan.

Epaimahaiak behar diren neurriak hartuko ditu konfidentzialtasuna bermatzeko. zuzenketa, ahozko probetan, irakurketa publikoko proba idatzietan edo betearazpen-praktiketan izan ezik, izangaien anonimotasuna zaintzen saiatuz egin beharko da.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetzari, hilabeteko epean, ebazpena iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahai Kalifikatzailearen helbidea honakoa izango da: Zumaiako Udala, Pertsonal saila. Foruen plaza 1, Zumaia.

ción cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, pudiendo ser recusadas por las personas aspirantes, de acuerdo con lo establecido en el artículo 24 de la citada Ley, cuando concurra alguna de las causas previstas en el artículo anterior.

El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de, al menos, e/la Presidente/a y el/ la Secretario/a y la mitad de sus miembros (titulares o suplentes), quedando excluido el/la Secretario/a del cómputo.

En los casos de ausencia o enfermedad y, en general, cuando concurra causa justificada, las personas titulares del órgano colegiado serán sustituidas por sus suplentes. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, el Presidente del Tribunal será sustituido por la persona suplente y, en su defecto, por la persona miembro del Tribunal de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden, de entre sus componentes. La sustitución temporal del/a Secretario/a en supuestos de vacante, ausencia o enfermedad se realizará por su suplente o, en su defecto, por acuerdo del mismo.

El Tribunal Calificador realizará el desarrollo y evaluación de las pruebas que integran el sistema selectivo, actuando con plena autonomía funcional, siendo responsable de la objetividad del procedimiento y garantizando el cumplimiento de las bases de la convocatoria. Por tanto, dentro de los límites establecidos en esta convocatoria y en sus bases, el Tribunal es el órgano competente para determinar el contenido de las pruebas a realizar, los criterios de evaluación a aplicar, los resultados de las pruebas y las circunstancias de todo tipo relativas a su realización, pudiendo acordar la inclusión en sus trabajos de personas asesoras o especialistas para todas o algunas de las pruebas incluidas en el concurso-oposición, limitándose a prestar asesoramiento y colaboración técnica.

El Tribunal actuará de acuerdo con las normas establecidas en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 10 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. El/la presidente/a del tribunal coordinará el proceso de selección y resolverá los empates que puedan producirse en las votaciones con voto de calidad. Todas las personas miembros del Tribunal tendrán voz y voto, excepto el/la Secretario/a, que tendrá voz pero no voto.

Las personas miembros del Tribunal y las personas asesoras y especialistas que participen en el proceso selectivo garantizarán, en el ejercicio de sus funciones, el derecho a la intimidad y el respeto y consideración a las personas aspirantes, velando por el tratamiento adecuado de la información recibida sobre cada aspirante.

En todo lo no previsto en estas bases, el Tribunal estará facultado para adoptar las decisiones necesarias para la adecuada organización y desarrollo del proceso selectivo, así como para resolver cuantas cuestiones se susciten en relación con la interpretación y aplicación del mismo, así como para el ejercicio de sus funciones.

El tribunal podrá requerir la acreditación de la identidad de las personas candidatas en cualquier momento del proceso selectivo.

El tribunal adoptará las medidas necesarias para garantizar la confidencialidad La corrección, salvo en las pruebas orales, en las de lectura pública por escrito o en las prácticas ejecutivas, deberá realizarse procurando preservar el anonimato de las personas aspirantes.

Contra las resoluciones del Tribunal podrá interponerse recurso de alzada ante la Alcaldía en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios.

Para las comunicaciones y demás incidencias, la dirección del Tribunal Calificador será la siguiente: Ayuntamiento de Zumaia, Departamento de Personal. Foruen plaza 1, Zumaia.

EK\CV GAO-I-2025-03816

Epaimahaikideek ordainsariak jasoko dituzte beren zerbitzuagatik, bai eta bertaratzeagatik ere, arlo honetako indarreko arautegiarekin bat etorriz.

8. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da. Oposizio eta lehiaketa sistemak egingo dira bata bestearen ondoren, izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena ezartzeko.

Oposizio-lehiaketako puntuazio osoa bi faseetan lortutakoen batura izango da, eta izangaien lehentasun-ordena zehaztuko du.

Oposizio-fasearen lehen ariketa egiteko data, ordua eta tokia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko da.

Oposizioaldiaren gainerako ariketak egiteko tokia eta egunak Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko dira, gutxienez ariketa hasi baino 48 ordu lehenago.

Parte hartuko duten izangaiei ariketa bakoitzerako dei egingo zaie, eta horretarako deialdi bakarra egingo da.

Epaimahaiak ezinbestekotzat jotako arrazoiak gertatu direnean izan ezik, ezarritako egun eta orduan ariketak eta probak egitera azaldu ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik baztertu egingo dira, eta deialdi honetan izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Epaimahaiak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko ditu desgaitasuna duten izangaientzat, baldin eta egokitzapena behar badute eta eskaeran horrelakorik eskatu badute, hartara, parte hartzen duten gainerako pertsonek dituzten aukera berdinak izan ditzaten, baldin eta horrekin eskatutako gaitasun-maila murrizten edo gutxitzen ez bada.

Prozesuaren edozein unetan, Epaimahaiak jakiten baldin badu izangairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, izangai hori deialditik kanpo utziko du, interesdunari entzunaldia eman ondoren. Halaber, egun horretan bertan, horren berri emango dio hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari.

Epaimahaiak, une oro, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die izangaiei. Hori dela eta, oposizioaldiko ariketa guztietara NAN edo, epaimahaiaren iritziz, izangaiaren nortasuna egiaztatzeko nahikoa izango den beste agiri ofizialen bat (pasaportea, gidabaimena, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia, etab.) aldean dutela bertaratu beharko dira.

Oposizioaren ariketa bakoitza bukatzen denetik hurrengoa hasi arte 72 ordu igaroko dira gutxienez. Hala ere, epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketak oinarrietan zehaztu diren beste ordena batean egitea, baita egun berean, proba bat baino gehiago egitea ere. Hurrenkera aldatzen baldin bada, Epaimahaiak izangaiei jakinaraziko die hori, gutxienez ariketa hasi baino 12 ordu lehenago.

Ariketa idatziak egiteko orduan, Epaimahaiak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, ahal den guztian, izangaien anonimotasuna bermatzeko.

Arau orokor gisa, proben kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita Epaimahai Kalifikatzaileak hiru egun balioduneko epea emango du, egindako azterketen berrikusketa eskatzeko edo azterketen kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Epaimahaiburuari bideratu beharko zaizkio eta Zumaiako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira.

Quienes formen parte del Tribunal, percibirán las indemnizaciones por razón de servicio que correspondan, incluidas las de asistencia, de acuerdo con la normativa vigente al respecto.

8. Proceso de selección.

El sistema selectivo será el de concurso-oposición, que consistirá en la sucesiva celebración de los sistemas de oposición y concurso, para determinar la aptitud de las personas aspirantes y fijar el orden de prelación entre ellas.

La puntuación total del concurso-oposición será la suma de las obtenidas en sus dos fases y determinará el orden de prelación de las personas aspirantes.

El lugar, y la fecha y hora de celebración del primer ejercicio de la fase de oposición se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web (www.zumaia.eus).

El lugar y las fechas de realización del resto de los ejercicios de la fase de oposición se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página (www.zumaia.eus) con una antelación mínima de 48 horas al inicio del ejercicio.

Las personas aspirantes participantes serán convocadas para cada ejercicio mediante una única convocatoria.

Salvo que concurran las causas de fuerza mayor previstas por el Tribunal, las personas aspirantes que no comparecieran a la celebración de los ejercicios y pruebas en el día y hora establecidos, serán excluidas del proceso selectivo y perderán todos los derechos que les pudieran corresponder en esta convocatoria.

El Tribunal adaptará el tiempo y los medios para la realización de los ejercicios a las personas aspirantes con discapacidad que lo requieran y lo soliciten en la solicitud, a fin de que puedan disfrutar de las mismas oportunidades que el resto de las personas participantes, siempre que con ello no se reduzca o disminuya el nivel de aptitud exigido.

Si en cualquier momento del proceso, el Tribunal conociera que alguna de las personas aspirantes no reúne los requisitos exigidos en la convocatoria, la excluirá de la misma, previa audiencia de la persona interesada. Asimismo, ese mismo día informará de ello a la autoridad convocante del proceso selectivo.

El Tribunal podrá, en todo momento, requerir a las personas aspirantes que se identifiquen debidamente. Por ello, deberán asistir a todos los ejercicios de la fase de oposición acompañadas del DNI u otro documento oficial que, a juicio del tribunal, sea suficiente para acreditar la identidad de la persona aspirante (pasaporte, carné de conducir, Número de Identificación de Extranjero/a, etc.).

Desde la conclusión de cada ejercicio de la oposición y el comienzo del siguiente, deberá transcurrir un plazo mínimo de 72 horas. Ello no obstante, el Tribunal podrá acordar la realización de los ejercicios en orden distinto al señalado en las bases, así como la realización de más de una prueba en el mismo día. En caso de cambio de orden, el Tribunal lo comunicará a las personas aspirantes con una antelación mínima de 12 horas al inicio del ejercicio.

Para la realización de los ejercicios escritos, el Tribunal adoptará, siempre que sea posible, las medidas necesarias para garantizar el anonimato de las personas aspirantes.

Como norma general, el Tribunal Calificador concederá un plazo de tres días hábiles, a contar desde el siguiente al de la publicación de las calificaciones de las pruebas, para solicitar la revisión de los exámenes realizados o presentar reclamaciones sobre las calificaciones de los mismos.Las reclamaciones deberán dirigirse al Presidente del Tribunal y presentarse en el Registro General del Ayuntamiento de Zumaia.

EK\CV GAO-I-2025-03816

Oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko ariketa bakoitzeko puntuazioak Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.zumaia.eus) argitaratuko dira.

* Oposizioaldia (gehienez ere, 70 puntu emango dira).

Oposizioaldiko ariketa bakoitzean, behin ariketak zuzendu ondoren eta izangaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak diren gutxieneko puntuak lortzeko nahitaezko ezagueren maila edo atalasea ezarri ahal izango du bai eta ariketa gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa murriztu ere, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, proba gainditu duten izangaien kopurua nahikoa ez bada.

Ariketa hauek osatuko dute oposizioaldia:

— Lehenengo ariketa. Ezagupen teorikoko proba, derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Idatziz oinarri hauen II. eranskineko gaiei buruz prestatutako aukerako galderak erantzun beharko dira, horietatik % 20a gaitegi orokorrari buruzkoak izango dira eta % 80a gaitegi espezifikokoari buruzkoak. Epaimahai Kalifikatzaileak galderak ofizioz deusezta ditzake, horretarako arrazoiak ikusten baditu.

Ariketa honi, gehienez ere, 15 puntu emango zaizkio; eta gainditzeko, ezinbestekoa izango da, gutxienez, 7,5 puntu lortzea.

— Bigarren ariketa. Euskara. Derrigorrezkoa eta baztertzailea. 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da. Maila hori egiaztatzen duen ziurtagiria zehaztutako epean aurkeztu ez duten hautagaiek egin beharko dute proba.

Nolanahi ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehienezko epea euskarako ariketa egiten den eguna izango da.

Proba honetan, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Azterketa IVAPek (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) proposatutako egunean zehazten dituen bulegoetan egingo da.

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuarekin bat etorriz, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira, jarraian aipatzen diren euskara-ziurtagiri edo tituluetakoren bat dutela egiaztatzen dutenak:

≡ Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) ziurtagiria, hizkuntza-eskakizun hori egiaztatu dela egiaztatzen duena.

≡ Beste ziurtagiri baliokide batzuk, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin edo hura ordezten duen araudiarekin bat etorriz.

Proba hau Gai edo Ez Gai kalifikatuko da, eta Gai kalifikazioa eskatuko da proba gainditzeko.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariazko baimena emango dio Zumaiako Udalari ziurtagiria edo haren salbuespena erregistro horretan egiaztatzeko.

Hautagaiak Zumaiako Udalari aipatutako baimena ematen ez dion kasuetan, aurkakotza horrekin batera nahitaez aurkeztu beharko du eskatutako egiaztagiria.

Nolanahi ere, interesdunak bere datuak kontsultatu ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, esteka honen bidez:

https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/.

Las puntuaciones de cada uno de los ejercicios de la fase de oposición y de la fase de concurso se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Zumaia y en la página web del Ayuntamiento de Zumaia (www.zumaia.eus).

* Fase de oposición (se valorará sobre un máximo de 70 puntos).

En cada ejercicio de la fase de oposición, una vez corregidos los ejercicios y con carácter previo a la notificación de la identidad de las personas aspirantes y a la determinación de la calificación de cada una de ellas, el Tribunal podrá establecer el nivel o umbral de conocimientos necesarios para alcanzar los puntos mínimos necesarios para superar el ejercicio así como reducir la puntuación mínima necesaria para superar el ejercicio cuando el número de personas aspirantes que hayan superado la prueba sea, a juicio del Tribunal, insuficiente.

La Fase de Oposición constará de los siguientes ejercicios:

— Primer ejercicio. Prueba de conocimientos teóricos, de carácter obligatorio y eliminatorio.

Consistirá en contestar a un cuestionario de preguntas, con respuestas alternativas, relacionadas con el temario del anexo II de las cuales el 20 % corresponderán al temario general y el 80 % al temario específico. El Tribunal Calificador podrá anular de oficio preguntas de respuesta alternativa si aprecia que existen motivos para ello.

Este ejercicio se valorará como máximo con 15 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 7,5 puntos para superarlo.

— Segundo ejercicio: Euskara. Obligatorio y eliminatorio. Acreditación del perfil lingüístico 3.

Tendrá carácter obligatorio y eliminatorio. La prueba la tendrán que realizar las personas aspirantes que no hayan presentado en el plazo estipulado el certificado que acredita dicho nivel.

En todo caso, el plazo máximo para acreditar cualquier título o certificado de euskera será la fecha de realización del ejercicio de euskera.

En esta prueba, deberá determinarse y acreditarse el conocimiento del euskera de dicho nivel.

El examen se realizará en las dependencias que determine el IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública) en fecha propuesta por dicho Instituto.

De conformidad con el Decreto 19/2024, de 22 de febrero, quedarán exentos/as de realizar esta prueba quienes acrediten estar en posesión de alguno de los certificados o títulos de euskera que se citan a continuación:

≡ Certificado del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), de haber acreditado dicho perfil lingüístico.

≡ Otros certificados equivalentes, de conformidad con el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, o normativa que lo sustituya.

Esta prueba se considerará Apto/a o No apto/a, requiriéndose el certificado de Aptitud para superar dicha prueba.

Al objeto de llevar a cabo las comprobaciones oportunas, la persona interesada autorizará expresamente al Ayuntamiento de Zumaia a la comprobación de su acreditación o de su exención en el citado registro.

En el supuesto de que la persona aspirante no otorgue la citada autorización al Ayuntamiento de Zumaia, deberá acompañar esta negación con el correspondiente certificado requerido.

En cualquier caso, la persona interesada puede consultar sus datos en el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera a través del siguiente enlace:

http://www.euskadi.eus/registro-unificado-de-titulos-y-certificados-de-euskera/web01-a2etzeb/es/.

EK\CV GAO-I-2025-03816

Hizkuntza-eskakizunen baliokideak diren ziurtagiriak eta tituluak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan zehazten dira, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dituena Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin, bai eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa.

— Hirugarren ariketa: Ezagupen praktikoko proba, derrigorrezkoa eta baztertzailea.

Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasunak ebaluatzeko helburuarekin, Epaimahaiak zehaztuko dituen ariketa teoriko-praktiko edo/eta praktiko bat edo batzuk ebatzi beharko dira, II. eranskinean zehaztutako gaien ingurukoak.

19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak, 39. artikuluan arautzen duena kontuan izanik, ariketa teoriko edo/eta praktiko bat edo batzuk euskara hutsean egin beharko dira.

Ariketa honi, gehienez ere, 55 puntu emango zaizkio eta, gainditzeko, ezinbestekoa izango da, gutxienez, 27,5 puntu lortzea.

Aurrekoa gorabehera, epaimahaiak, eska daitekeen gutxieneko maila eta aurkeztu direnen ezagutza-maila kontuan hartuta, haien nortasuna ezagutu aurretik, gutxieneko nota aldatu eta ariketa gainditzeko eska daitekeen gutxieneko puntuazioa ezarri ahal izango du, eta erabaki hori publiko egingo du.

Epaimahaiak erabakiko du zein motatako azterketa egin behar den, baita azterketa hasi aurretik zein zuzenketa eta baloratzio irizpide finkatu behar diren ere.

* Lehiaketaldia (gehienez ere, 30 puntu emango dira).

Lehiaketa fasea ez da baztertzailea izango eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko, Toki administrazioko funtzionarioen aukeraketa prozesuak arautzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa fasean oposizio fasea gainditu dutenek eskabidean idatzi dituzten merezimenduak aztertuko eta baloratuko dira. Inolaz ere ez dira baloratuko eskabidean edo erantzukizunpeko adierazpenean jaso ez diren merezimenduak.

Epaimahai Kalifikatzaileak, hautaketa-prozesuan zehar, hamar egun balioduneko epea irekiko du izangaiek izena emateko eskabidean alegatzen dituzten merezimenduak egiaztatzeko. Oinarri hauetan zehaztutako baremoen arabera baloratuko ditu merezimenduak, eta baremo horien arabera dagokion puntuazioa emango dio izangai bakoitzari.

Dena dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren iragarkian eskabideak aurkezteko finkatutako azken egunaren aurretik lortutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Lehiaketa fasean gehienez ere 30 puntu emango dira honako baremo honen arabera:

Lan-esperientzia. Gehienez ere, 25 punturekin baloratuko da, ondorengo eran:

— Administrazio publikoan C1 azpitaldeko administrari plazetan egindako zerbitzuak baloratuko dira, ondorengo eran:

0,40 puntu emango dira zerbitzu-hilabete oso bakoitzeko (zati txikiagoak ez dira zenbatuko).

Ez dira ebaluagai izango, beken bitartez egindako zerbitzuak ezta ere formazioko praktiken bitartez egindakoak.

Las certificaciones y títulos equivalentes a los perfiles lingüísticos se determinan en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas y en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

— Tercer ejercicio: Prueba práctica, de carácter obligatorio y eliminatorio.

Con el objetivo de evaluar las capacidades necesarias para el desempeño de las funciones del puesto de trabajo, el Tribunal requerirá la resolución de uno o varios ejercicios teóricos-prácticos y/o prácticos referidos a los temas especificados en el anexo II.

De conformidad con lo establecido en el artículo 39 del Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco, uno o algunos de los ejercicios teórico-prácticos y/o prácticos se deberán resolver exclusivamente en euskara.

Este ejercicio se valorará como máximo con 55 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 27,5 puntos para superarlo.

No obstante lo anterior, el tribunal, teniendo en cuenta el nivel mínimo exigible y el nivel de conocimientos de quienes se han presentado, antes de conocer su identidad, podrá modificar la nota mínima y establecer la puntuación mínima exigible para superar el ejercicio y hará público dicho acuerdo.

Queda a criterio del tribunal la tipología del examen a plantear, así como la determinación de los criterios de corrección y valoración que deberán fijarse antes del inicio de aquella.

* Fase de concurso (se valorará sobre un máximo de 30 puntos).

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio, ni podrá tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de oposición, de conformidad con lo establecido en el artículo 4.c) del Real Decreto 896/1991 de 7 de junio por el que se regula el procedimiento de selección de funcionarios/as de Administración Local.

La fase de concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados en la solicitud por las personas aspirantes que hayan superado la fase de oposición. En ningún caso se valorarán méritos no alegados en la solicitud/declaración responsable.

El Tribunal Calificador abrirá durante el proceso selectivo un plazo de diez días hábiles para la acreditación de los méritos que los/as aspirantes hayan alegado en el formulario de inscripción. El Tribunal realizará la valoración de los méritos de conformidad con los baremos establecidos en estas bases y asignará a cada aspirante la puntuación que le corresponda con arreglo a esos baremos.

En todo caso, únicamente se valorarán los méritos obtenidos con anterioridad a la fecha límite fijada para la presentación de solicitudes en el anuncio del Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La puntuación máxima en la fase de concurso será de 30 puntos según el siguiente baremo:

Experiencia profesional. Se valorará sobre un máximo de 25 puntos, de la siguiente manera:

— Se valorarán los servicios prestados en la Administración Pública en plazas de administrativo/a del subgrupo C1, de la siguiente forma:

Se valorará con 0,40 puntos por mes completo de servicio (no computándose fracciones inferiores).

No serán objeto de evaluación los servicios realizados mediante becas y prácticas de formación.

EK\CV GAO-I-2025-03816

Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.

Zerbitzuak aldi berean ematea ataletako batean bakarrik baloratu ahal izango da, eta, nolanahi ere, puntuaziorik handiena ematen duen atalak baloratuko du.

Emandako zerbitzuak organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko dira, eta honako hauek zehaztu beharko dira: lan-harremanaren iraupena, dedikazioaren ehunekoa, betetako lanpostua eta egindako eginkizunak.

Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren dokumentu eguneratua ere aurkeztu beharko da.

Nolanahi ere, Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du esperientzia hori hobeto egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eskatzeko edo egiaztapen guztiak egiteko.

Zerbitzuak modu honetan zenbatuko dira:

Zerbitzuak lanaldi arruntaren barruan eskaini badira, erabiliko den formula izango da lan egindako urte osotzat 360 egun hartzen dituena, eta lan egindako hilabete osotzat, berriz, 30 egun hartzen dituena.

Zerbitzuak lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eskaini baldin badira, kontaketa proportzionalki egingo da egiaz eskaini den denboraren arabera, betiere familia kontziliazioagatiko murrizketak ez badira, horiek % 100ean zenbatuko baitira.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak zenbat denbora egon diren senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran; zenbat denbora egotz dakiekeen amatasuna eta aitatasuna babestea helburu duten lanaldi-murrizketei edo baimenei; zenbat denbora eman duten bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren kontziliazio erantzunkidea errazten; baita langile publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak erabili dituzten denbora ere, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 21. artikuluaren arabera.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da.

Prestakuntza: Gehienez ere, 5 puntu emango dira.

Administrazio publikoan C1 azpitaldeko plazei lotutako lanpostuen eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den prestakuntza osagarria baloratuko da gehienez ere 5 puntura arte, ondorengo eran:

a) Titulu akademikoak:

— Unibertsitate-graduko titulazioa edo baliokidea (Meces 2. maila). 1 puntu titulu bakoitzeko.

b) Ikastaroak:

Atal honetan, Administrazio Publikoko C1 azpitaldeko plazei atxikitako lanpostuen eginkizunak eta erantzukizunak betetzearekin lotutako beste prestakuntza osagarri batzuk hartuko dira kontuan.

Aipatutako ikastaroak, erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek (Herri Administrazioko Eskola edo Institutuetan, Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako ikastaroak izango dira eta bakoitzaren prestakuntza-ekintzen iraupena, ordutan, jaso beharko dute baloratuak izateko.

Ikastaroen gutxieneko iraupena 20 ordukoa izan behar da. Puntuazio baremo hau aplikatuko da:

— 20 eta 49 ordu bitarteko ikastaroak: 0,10 puntu.

— 50etik 99 ordu bitarteko ikastaroak: 0,20 puntu.

— 100 ordu edo gorakoak diren ikastaroak: 0,30 puntu.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento convocante deberán ser alegados y serán computados de oficio.

La prestación de servicios en un mismo período de tiempo podrá valorarse únicamente en uno de los apartados, siendo valorado, en todo caso, por el apartado que otorga una mayor puntuación.

Los servicios prestados deberán ser acreditados mediante certificación expedida por el órgano competente, especificándose la duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación, el puesto desempeñado y las funciones realizadas.

Se deberá presentar, además, el documento actualizado de la vida laboral expedida por la Seguridad Social.

En todo caso, el Tribunal Calificador tendrá la potestad de requerir la documentación o realizar cuantas comprobaciones estime oportunas para la mejor acreditación de dicha experiencia.

Los servicios se computarán de la siguiente manera:

En el caso de que los servicios se hayan prestado bajo jornada ordinaria, la fórmula a utilizar será la que comprenda 360 días como año completo trabajado y 30 días como mes completo trabajado.

Si los servicios se hubieran prestado a tiempo parcial o en jornada reducida, el cómputo se realizará proporcionalmente al tiempo realmente ofertado, siempre que no se correspondan con reducciones por conciliación familiar ya que éstas se computarán al 100 %.

A estos efectos, se valorará el tiempo durante el que las personas candidatas hayan permanecido en la situación de excedencia por cuidado de familiares o por violencia de género, el tiempo atribuible a reducciones de jornada o permisos que tengan por finalidad prevista proteger la maternidad y paternidad, o facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral, así como el tiempo en el que las empleadas públicas hayan hecho uso de permisos por razón de violencia de género, en virtud del artículo 21 del Decreto legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad.

Formación: Se valorará sobre un máximo de 5 puntos.

Se valorará hasta un máximo de 5 puntos la formación complementaria que se considere que contribuye al desempeño de las funciones y responsabilidades de puestos de trabajo adscritos a plazas del subgrupo C1 en la Administración Pública, de la siguiente forma:

a) Títulos académicos:

— Titulación de grado universitario o equivalente (Meces nivel 2). 1 punto por título.

b) Cursos:

En este apartado se tendrán en cuenta otras formaciones complementarias relacionadas con el desempeño de las funciones y responsabilidades de puestos de trabajo adscritos a plazas del subgrupo C1 en la Administración Pública.

Los cursos deberán ser impartidos por Organismos Oficiales u homologados por ellos (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios Profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones) y la duración de las acciones formativas de cada uno de ellos, en horas, para ser valorados.

La duración mínima de los cursos será de 20 horas, aplicándose el siguiente baremo de puntuación:

— Cursos de 20 a 49 horas: 0,10 puntos.

— Cursos de 50 a 99 horas: 0,20 puntos.

— Cursos de 100 horas o más: 0,30 puntos.

EK\CV GAO-I-2025-03816

Eduki berdina edo antzekoa duten bi ikastaro aurkeztuz gero, egindako azkenengoa baloratuko da.

Titulazio akademiko ofizialak egiaztatzeko, aurkeztu ahal izango dira titulua bera, tituluaren ordezko ziurtagiria edo titulua eskuratzeko tasak ordaindu izanaren zurigarria. Titulu horiek eta, hala badagokio, atzerriko ikasketak homologatzeko ziurtagiriak, Hezkuntza Ministerioak edo unibertsitate errektoreek sinatuta egongo dira.

Ikastaroen kasuan, ziurtagiriek nahitaez adierazi beharko ditu ikastaroa antolatu duen erakundearen izena, ikastaroaren izena eta ikastaroaren iraupen-orduak eta, ahal bada, irakaskuntza-programa. Epaimahaiak ez ditu kontuan hartuko oinarri hauetan eskatutako informazioa betetzen ez duten ziurtagiriak.

c) Informatikako ezagutzak:

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 2 puntu gehienez, eta 0,5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

— Oinarrizko Internet.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

— Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera.

Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

9. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioak.

9.1. Azken kalifikazioa eta lehentasun hurrenkera.

Azken kalifikazioa eskuratzeko oposizio faseko eta lehiaketa faseko puntuazioak batuko dira (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura), eta horrek eta plaza lortu nahi dutenen lehentasun-ordena zehaztuko du.

9.2. Berdinketa hausteko irizpideak.

Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak honako irizpide eta ordena hauen arabera ebatziko du:

